




Kepa Mendia, Gasteizko Olagibel kaleko optikan. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

infraganti KEPA MENDIA

Madriren heldu zion aitaren tradizioari, euskaltzaletasunari, alegia. Han ikasketak bukatutakoan, euskalgintzari ekin zion buru belarri. Kepa Mendiaren aita euskaraz egiten zuen bere optikaren publizitatea, eta Kepak, bere «patua» baitzen, ohiturari eutsi zion, merkataritza estrategia izan gabe. Baina, gerora ikusi duenez, onuragarri gertatu zaio.

Ostegun arratsaldean ari-
neketan ibili
zen. Arineke-
tan baina ez
presaka. Lehe-
nengo, Otxandion; ordu batzuk
geroago, Gasteizen. Euskarari
bultzada emateko, milaka lagun
bezala, duela 40 urtetik bezala.

Izan ere, urte askoan AEK-ko kide
gisa eta ondoren ere harreman
estua izan du Kepa Mendiak Eus-
kal Herriko lasterketarik luzeen
eta jendetsuenarekin. Hasieratik
Korrikari eskaini dion laguntza
ez da oharkabean geratu, ordea.
1999an, 11. edizioan, hain zuzen,
Korrikak omendutako pertsone-
tako bat izan zen Kepa, Mendia

Optikako ordezkari gisa, beste 11
erakunderekin batera. Harrota-
sunez baina apal gogoratzen du
ilusio handia egin ziola omenaldi
hark. Huraxe da haren sari kutu-
na. «Baina nik jaso ditudan ome-
naldiak eta sariak ez dira niri ba-
karrik eskainiak, jende askori
baizik», dio. Eta baten batzuk ja-
so ditu: 2010ean, Lazarraga saria;
2014an, Bai Euskarari saria; iaz,
Durangoko Azokaren Argizaiola,
«urte askoan inurri lana egin du-
ten beste askorekin batera». Ai-
torpenok balio handia dute bera-
rentzat. Poz handia eman izan
diote, «baina baita urduritasuna
eta ardura ere». Eta berriro, meri-
tua arindu nahi izango balu be-
zala, optikari esker euskalgintzan
ezaguna dela dio. Baliteke. Edo-
nola ere, ezin uka Mendia Opti-
kak duen prestigioa Kepari eta
bere aurrekoei zor diela.

Lanari tartea kendu behar izan
zion euskararen lasterketan par-
te hartzeko, baita GAUR8ren bisi-
tari harrera abegitsua egiteko
ere, Gasteizko Olagibel kaleko
dendan, betaurreko artean eta
Korrikaren karietara atondutako
sarreran.

Gaur arratsaldean Printzipal
antzokian Arabako Bertsolaritza
Txapelketaren finala jokatu-
ko da. Txapelketa hori ere babestu
du Mendia Optikak. Horrelako
mugimendu, ekimen eta pertso-
na guztiek merezi dute laguntza,
«baina ezin guztietara iritsi», eta
ahal duen moduan laguntzen
die Korrika eta AEKri, GEU elkar-
teari, «Alea» Arabako aldizkariari,
Bertsozale Elkarteari... «Aurten,
gainera, Serapio sailkatu da fina-
lerako! Bertsolariek dena merezi
dute, denak dira jatorrak, baina
beteranoenak irabaztea nahi nu-
ke, aurrerantzean aukera gutxi
izango du eta». Serapio Lopez
baranbiarra Aiarako bertso esko-
lako fundatzaileetakoa da, eta,
beraz, Arabako bertsolaritzaren
historia bizia.

OPTIKA EUSKALTZALEA

«Maiz zeharkatzen zuen plaza.
Gogokoak zituen haren itxura
eta giroa. Leku atsegina zen, ez
oso nabarmena. Arkupeetan ba-
rrera ibiltzen zen. Bazeuden ne-
kazaritza-lanabesak zituzten
dendak, optikari bat, Mendia

(...)». Horrela deskribatu zituen
Pio Barojak «El cura de Monleón»
eleberriko pertsonaia nagusiak
Gasteizko Plaza Berrian egiten zi-
tuen txangoak, joan den mende-
ko 30eko hamarraldian. Eleberria
1936an argitaratu zuten, eta or-
durako Mendia Optikak 80 urte
pasa zituen. Kepa Mendiaren he-
renaitona Romanek zabaldu
zuen Argantzunen (Trebiñu).
1898an birraitona Kintin Gastei-
zera joan zen familia guztiarekin
eta hara aldatu zuen denda, Plaza
Berriaren eta Andre Maria Zuria-
ren Plazaren arteko lokala aloka-
tuta. Keparen aita optikaria zen,
eta saltokia berriztatu zuen. Ber-
tan, betaurrekoak ez ezik, Four-
nierren kartak eta musika tres-
nak ere salgai zituzten, besteak
beste: txistuak, gitarrak... Baita
diskoak ere. Euskal musika hain
erraz topatzen ez zen garaian,
Mendia Optikan ez zen euskal
disco edo kaseterik faltako. 60ko
hamarraldian, Alfredo Donnay
poeta eta konpositore famatuak
bertara eramaten zuen bere gita-
rra konpontzera. 1986an, Kepa-
ren ardurapean, optika huts gisa
gelditu zen azkenean denda, es-
pezializatuta. Ondoren beste
denda bat ere zabalduko zuen
Olagibel kalean.

Optika gisa ez ezik, euskalgin-
tzari lotutako saltoki gisa ere eza-
guna da, oso, Mendia aspaldi lu-
zetik. 1970ean, Radio Vitoria
irratia «Euskal Jaia» izeneko pro-
grama egiten hasi zen. Igandero
Gasteizko familia ugarik entzu-
ten zuten bazkalorduan ordu er-
diko programa «bitxia»; bitxia,
Radio Vitorian euskara entzute-
ko aukera bakarra zelako, jaietan
edo erromeriaren batean izan
ezik euskal musika ere nekez en-
tzun zitekeen garaian. Keparen
aitak ez zekien euskaraz, baina
oso euskaltzalea zen eta hasiera-
tik izan zen programaren babes-
lea. Eta semeak jarraituko zion
tradizioari, euskarazko publizita-
tea eginez. 90eko hamarraldia-
ren hasierara arte iraun zuen
«Euskal Jaia» saioak. Kepa irrati-
ra joan ohi zen maiz, eta Jose Mari
Sedano esatariak euskarazko tes-
tuak gainbegiratu eta moldatze-
ko eskatzen zion. Saioen ostean
ea ondo ulertu zitzaion galde-
tzen omen zion. Gaur egun harri-



«Euskara erabiltzea bezeroak fidelizatzeke modu bat ere bada», nabarmendu du Kepa Mendiak. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

duraz gogoratzen du frankismoan ez zutela arazo handirik izan programa hura zela eta. Behin baino ez zien Gobernu Zibilak saioa ez zezatela egin «aholkatu», Aberri Egun batean.

Ordurako Kepa optikari ikasketak egiten hasia zen, Madrilen, Euskal Herrian ez baitzegoen halakorik. Bukatutakoan, «lan egiteko gogo handirik gabe», Ekonomiako ikasketak hasi zituen. Lan egiteko gogorik gabe, dioenez; hala ere, gogotik egingo zuen lan, karrera ez ezik, euskara ere ikasi baitzuen, baita amorratoraino euskaltzaletu ere Madrilgo La Sallen zebilen euskaldun mordoarekin. 1976tik aurrera, Gasteizen, euskalgintzari ekingo zion buru belarri, lehenengo Olabide ikastolan eta berehala AEKn, alfabetatze koordinakundeak izen hori hartu eta indartzen hasi zenean, besteak beste, ondoren emaztea izango zuen Maiterekin. 1978an, aitaren optikan lan egiten bazuen ere, Euskal Filologia ikasten hasi zen

Gasteizko fakultate abiatu berrian, bertako lehenengo promozioan. Eta karrera bukatu baino lehen, optikaren ardura hartu eta berriztatu egin zuen, konpetentzia gero eta handiagoa baitzen. Optika handiak, ondo prestatuak, iritsi ziren eta ezin atzean gelditu, ezin antzina nako prestigioetik soilik bizi; bezeroei kalitatezko produktuak eta arreta eskaini beharra zegoen. Hori bai, «patua» horixe baitzen, aitaren tradizioari jarraituta publizitatea euskaraz eta erdaraz jartzen zuen. «Etxean eta lagun artean euskaraz egiten nuenez, zergatik ez lanean ere?». Eta euskarazko publizitatea errentagarria al den galdetzeko

AEK-ko kide gisa eta ondoren ere harreman estua izan du Kepa Mendiak Euskal Herriko lasterketa luze eta jendetsuenarekin. 1999an, Korrikak omendu zuenetako bat da Kepa

Optika gisa ez ezik, euskalgintzari lotutako saltoki gisa ere ezaguna izan da, oso, Mendia. 1970ean, Radio Vitoria «Euskal Jaia» izeneko programa egiten hasi zen, Mendiak babestuta

tarterik utzi gabe, jarraitu du: «Euskararen aldeko erabaki hartan ez zegoen merkataritza estrategiarik, baina gerora ikusi dut guztiz onuragarria izan zela». Hasieran lagun eta ezagun batzuek esaten zioten publizitatea euskaraz egiteak ez

ziola onik ekarriko, eta berak erantzuten zuen bizitzeko ez zuela %51rik behar, «ni %10arekin oso ondo biziko naiz, horregatik zaindu nahi dut arlo hori». Eta denbora batez, erabakia ez zen negozioarentzat ez onuragarria ez kaltegarria izan. Gaur egun, ordea, ez du zalantzarik egiten negozioarentzat onuragarria izan dela luzera. Areago, gaur egun gero eta ga-

rantzitsuagoa dela uste du, bezeroek berek eskatzen baitute euskara, «eta bezeroak fidelizatzeke modu bat ere bada». Bere bezeroen bi bostenekin euskaraz egiten du. Enpresa handiak eta multinazionalak ere euskarazko publizitatearen balioaz konturatzen hasi direla dio.

Bide horretan laguntzaile onak izan ditu, eta bi ditu gogoan bereziki, bere emazte Maitetz gainera. Xabier Kintana euskaltzainari hainbat zalantza eta optika terminoen zerrenda bat bidali zizkion, eta hark «oso lan polita» egin zuen. Eta Txipi Ormaetxea EHUKo irakasle eta lagun minak ere «laguntza paregabea» eskaini zion urte askoan.

Gaur egun, euskalgintzari dagokionez, argiak eta itzalak dau dela dio. Argiak nabaritzeko, 30 urte atzera begiratu besterik ez dagoela dio. Hala ere, hemendik aurrera «lehia gogorra» ikusten du, erdara zein hegemonikoa den ikusita. Gasteizko euskalgintzari dagokionez, orain Keparen kezkarik handiena Euskararen Etxea eta Kafe Antzokia dira. Euskararen Etxea abian da Oihaneder jauregian, arrakasta handiz, eta espero du bere kezka uxatuta ikustea luze gabe Kafe Antzokia aurrera ateratzen denean, borroka alderdikoiek alferrik galdu gabe. Jarrera ona ikusten du bai herritarren aldetik bai erakundeen aldetik elkarrekin norabide zuzenean aurrera egiteko. Baina ez du ahaztu «lan militanteari esker iritsi garela hona, erakundeak ez baititugu alde izan». Oro har, pozik dago Gasteizko egoerarekin, «euskaldun berrien hiriarekin», eta Lourdes Oñederra idazle eta irakaslearen esaldi bat datorkio gogora: «Hemen ez dago euskaldun berri eta zaharrik, guztiok gara euskaldun berriak, guztiok ari gara euskara ikasten, lantzen, sendotzen, indartzen». Eta segituan, euskara batuaren ezinbestekotasunaz, oraindik orain Jean Louis Davant euskaltzainak esandakoa gogorarazi du: «Hizkuntza nazional bat behar zen, nazio bat garenez geroztik».

Kepa Mendia, optikaria. Euskaltzalea. Optikari euskaltzalea. •

Xabier Izaga Gonzalez